

Otsailaren 5eko 1/1988 LEGEA, «Tribunal Vasco de Cuentas Públicas / Herri-Kontuen Euskal Epaitegia»rena.

ZIOEN ADIERAZPENA

Euskal Herriko Herriogasuntza Nagusiaren Antolarauen Ekainaren 22ko 12/1983 Legeko 65. atalak agintzen duenez, Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak arta egingo dio Euskadiko Autonomia-Elkarteko ekonomia-ihardunari, sortarazi eta araupetu dezan araupidetzan jarri daitezen modu eta neurritan, Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak izendatuta dauzkan agintepideen kaltetan gabe.

Autonomia-Elkarte Osorako Erakundeen eta Kondaira-Lurraldeetako Foruzko Ihardutze-Sailen arteko Harremanen 27/1983 Legeko 30. atalak, bere aldetik, Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren egitura zehaztea eta, bere 9. idazpuruak, ihardutze-sail horren osatze-modu, erakuntza eta egitekoak Eusko Legebiltzarraren Legez sortarazi eta araupetu daitezela agintzen du, baita halaber horren ikuskaritzazko eta agintaritzazko egitekoetarako bermeak eta bideak ere.

Aintzin-arau horietatik abiatuz, Lege honek Herri-Kontuen Euskal Epaitegia sortarazi, eta bi aldetatik araupetzen du: Batetik, ihardutze-sail horren erakunde denezko jaurpideak ematen ditu, osatze-modua, erakuntza eta ekonomiazko, ondarearekiko eta lanariekiko jaurpideak sartuz; bestetik, berriz, horren Ihardunerako jaurpideak ematen du, Autonomia-Elkarte Osorako Erakundeen eta Kondaira-Lurraldeetako Foruzko Ihardutze Sailen arteko Harremanen Legeko 30. atalak Epaitegiari jartzen dion ihardutze-egituraren arauera horren ihardunarentzako oinarritzako aintzin-irizpideak zehaztuz.

Epaitegi hau sortzeak, beraz, Euskadiko Autonomia-Elkartearen mugartean ekonomia eta dirubidetzazko burujabetza gauzatzea dakar.

I IZENBURUA

OROTARIKO ERABAKIAK

LEHENENGO ATALBURUA:

SORTARAZTEA ETA GAITASUN-EREMUA

1. Atala.– Sortaraztea.

1.– Tribunal Vasco de Cuentas Públicas/Herri-Kontuen Euskal Epaitegia, aurrerantzean Herri-Kontuen Euskal Epaitegia izango dena sortarazten da, Euskadiko Autonomia-Elkartearen berenezko eta Eusko Legebiltzarraren artezko menpeko ihardutze-sail.

2.– Herri-Kontuen Euskal Epaitegia, bere agintepideen eremuan, Euskal Herri-Alorreko ekonomia, dirubidetza eta kontaduritzza-ekintzapideen artarako goreneko ihardutze-sail izan eta Eusko Legebiltzarraren esku-ematez Autonomia-Elkartean ihardungo du.

2. artikulua.– Kontrolaren esparrua eta hedapena.

1.– Kontuen Epaitegiari esleitutako eskumenei kalterik egin gabe, Herri Kontuen Euskal Epaitegiak kontrolatuko du:

a) Euskal arlo publikoaren jarduna, lege honen ondorioetarako honako hauek osatua:

– Euskal Autonomia Erkidegoko arlo publikoak, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginean (1/1997 Legegintzako Dekretuaren bidez onetsia) definituta dagoen moduan.

– Lurralde historiko bakoitzeko batzar nagusiek eta foru-aldundiek eta haien mendeko erakunde instituzionalek eta sozietate publikoek.

– Toki-erakundeek eta haien mendeko erakunde instituzionalek eta sozietate publikoek, Ekonomia Itunaren Legean ezarritako erregimen ekonomiko-finantzarioaren berezitasunak direla eta.

– Zuzenbidean onartutako edozein moduri jarraituz sortutako pertsona juridiko orok, euskal arlo publikoko erakundeen parte-hartzea edo finantzazioa baldin bada nagusi, zuzenean edo zeharka, edo parte-hartze edo finantzazio minoritarioa batuta, ente berean, parte-hartzearen edo finantzaketaren gehiengoa badute.

– Lehen esandako erakundeetatik etortzen diren ondasun edo efektu publikoak administratzen edo erabiltzen dituzten entitate guztiek.

b) Euskal arlo publikoaren ekonomia- edo finantza-laguntzak jasotzen dituen eta aurreko idatz-zatian sartzen ez den edozein pertsona fisiko edo juridikoren jardura. Laguntza horiek behar bezala erabili ote diren eta zuten helburura bideratu ote diren jakiteko egingo da kontrola.

c) Hauek joko dira laguntzat: diru-laguntzak, zergak ordaindu behar izatetik salbuestea edo zergetan onurak eskaintzea, euskal arlo publikoak jarri edo utziriko ondasunak edo industria, eta emaniko kredituak, abalak edo bestelako bermeak, merkatuko prezioan baino merkeago edo dohainik ematen direnean.

2.– Kontuen Epaitegiak Legebiltzarrari honen ardulararitza-maila hutseko egitekoei datxezkien ekonomia eta dirubidetza-ekintzapideen arta-ikermenarekikoan lagunduko dio.

BIGARREN ATALBURUA:

EGITEKOA ETA IHARDUNA

3. Atala.– Egitekoak.

1.– 2. atalak dioen neurrian, Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak honako egiteko hauek beteko ditu:

a) arta-ikuskaritza.

b) kontaduritzea-erantzukizuna epaitzerakoan, indarrean dauden legegideetan oharmandakoari atxikiz ihardungo du.

Horretarako, Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak, Kontuen Epaitegiaren esku-ematez, herri-diru edo agirien ardura izan dezatenek agian izan dezaketen erantzunbeharraren epaiketarako agintemende-mailako epaibideak egin ahal izango ditu.

Kontaduritzea-erantzunbeharra Herri-Kontuen Euskal Epaitegian eskatzezko auziperatze-ekintza herri-mailakoa izango da, eta Epaitegi horrek hori egin izana Kontuen Epaitegiari jakinaraziko dio, horri buruzko salakuntza bidaliz, eta aurreko zatian esandakoaren arauera, agintemendez dagokion egitekoa betetzeko eskua eman diezaiola eskatuko dio.

Kontaduritzza-erantzunbeharragatikako epaibideei ekin ondoren, Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak herriogasun, diru eta agiriak zaintzeko eta babesteko, edo eta ustezko errudunak, hala gertatuz gero, erantzunbeharraren menpe dagoela adierazteko erabakia beteko duela bermatzeko egoki eritzitako aurre hartzeko neurri guztiak hartu ahal izango ditu.

2.– Halaber, Eusko Legebiltzarrari ekonomia-dirubidetzaren alorrean aholkuak ematea ere berenezko egitekoa izango du. Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak Eusko Legebiltzarraren Osoko Bilkurak eskatuta beteko du egiteko hori.

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak, bere Lehendakariaren bidez, bere aholkularitza egiteko beharrezko deritzan xehapen, argipide eta agiri guztiak eskatu ahal izango ditu.

4. Atala.– Iharduna.

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak iareitasunez eta lege-antolapideekiko erabateko menpetasunez ihardungo du.

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren beraren kontuen arakaketa Eusko Legebiltzarraren gain egongo da; horretarako, 14. Atalean esaten den urteko argipide-txostenaren eraskin gisa bidaliko dio.

II IZENBURUA

IHARDUTZE-JAURPIDEAK

LEHENENGO ATALBURUA:

OROTARIKO MANUAK

5. Atala.– Laguntza, egiaztaketa eta ikuskaritza.

1.– Bere egitekoak betetzeko, honako hauetarako gaitasuna du Epaitegiak:

a) Euskal herri-alorraren eta Lege honetako 2.1 atalean aipatutako erakundeen eraenpideari buruzko zehaztapidetza eta agiri, xehetasun, altzina eta argipide guztiak eskuratzeko, eta bai beharrezkotzat jo ditzan idazkun, txosten edo argipide guztiak eman dakizkiola hertsiki eskatzeko ere. Eskea dagokion Sail edo Erakundearen bidez egingo da.

b) Dirutan, baliotan, gauzatan, etabarretan zer dagoenari buruzkoan beharrezkotzat jo ditzan egiaztaketak egiteko.

c) Arta-ikerketa horren gai den ihardutze-sailaren egoitzan ala Epaitegiarenean, zeinetan egin bakoitzean erabakitzeko.

2.– Gorago esandako lanak egiteko, Epaitegia bere lanarigoaz baliatuko da gehienbat, berrizko teknika-jakintzen beharra dela eta horretarako berariz jarritako kanpoko aituengana jo behar dadinean salbu.

3.– Agiri-paperak aurkezteko edo hitzezko argipideak ematera agertzeko epeak jarri ahal izango ditu Epaitegiak. Horiek ez egitea Lege honen 6. atalak dioenetako traba-jartzetaz joko da.

6. Atala.– Eragozpenak.

1.– Eskatutako argipideak bidali ez izanak, agertu ez izanak edo aurrez jarritako epeak bete ez izanak Epaitegiari honako neurri hauek hartzeko bide eman ahal izango diote:

a) Laguntza ematera behartuta daudenei, azken-epe berri bat idatziz emanaz, mehatxu egi-nezko eskea egin eta aldi berean epeak bete ez izana goragoko mailakoei jakinaraztekoa, hauek horren zio eta guztiko azalpena egin beharko dutela.

b) Emandako azken-epari jaramonik egingo ez balitzaio, eskea egin zaionaren goragoko mailako ihardutze-saila ez betetze horien jakitun jartzekoa.

2.– Epaitegiak hartutako goragoko neurriez landa, eragozpenak jartzea arau-hauspena izan, eta Eusko Legebiltzarrak ontzat emandako osagarrizko lege-mailako arauetan jarri daitezzen modutan zigortu ahal izango da.

Eragozpenak jartzeko ezein jokabide beti Eusko Legebiltzarrari jakinaraziko zaio.

3.– Laguntzarik ez ematea eta egiaztaketa eta ikuskaketa-lanak egiten ez uztea edo horietarako oztopoak jartzea, nolana ere, eragozpen direlakotzat joko dira.

7. Atala.– Erakundegoren-mailako harremanak.

1.– Euskal Herri-Kontuen Epaitegiaren Euskadiko Autonomia-Elkarteko Erakundegoren-Arduralaritzari edo Arduralaritzako Nagusiari buruzko iharduna, Arduralaritzako Artekaitza-sail nagusienaren bidez egingo da, horren ihardutze-eremuari dagozkion gaiak izan daitezenean; bestelakotan, ihardun hori dagokion Epaitegi eta Izaiki edo ihardutze-sailaren aurrengo artezkoa izan ahal izango da, esandako artekaitza-sail horri jakinarazita.

2.– Epaitegiaren Batzar Nagusi, Foru-Diputazio eta Udalbatzarrekiko iharduna, horiekin erabilgarri izan daitezzen arauetari daren ihardutze-sailaren bidezkoa izango da.

3.– Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren eta Legebiltzarraren arteko harremanak Ekonomia, Herriogasuntza eta Diruegitamuetako Batzordearen bidez bideratuko dira.

4.– Epaitegiak, zaingorako kanpotikako ihardutze-sailenez, zaingorako barneko ihardutze-sailen eragingarritasunaren zaingoa egin ahal izango du, eta horiek, beti ere, Epaitegiak eska diezaienetan, honi laguntza eman beharko diote.

Halaber, barneko eta kanpotikako zaingoen artean behar hainbateko elkar-lankidetzaz eta laguntzasuna lortzeko beharrezko eritzitako neurrien salo egin ahal izango du Epaitegiak.

8. Atala.– Eskurakoitasuna.

1.– Euskal Herri-Kontuen Epaitegiak bere agintepideez baliatuz aztertutako kontuetan, Eusko Legebiltzarreko kideek Euskal Herri-Alorra osatzen duten izaiki guztienak bere esku izango dituzte, Biltzar Nagusiek bere Kondaira-Lurraldeetako izaiki guztienak, eta Udalbatzarrek eurenak eta bere menpeko izaiki guztienak.

2.– Herritarrek aurreko zatian esandako kontuak egiaztatzeazko aldakiak eta egiaztagiria esku-ratu ahal izango dituzte, baita Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren agirigordetegiak eta erroldak Konstituzioko 105 b) atala osabideratuzko legean agindu dadin eran aztertu ere.

BIGARREN ATALBURUA:

ARAKAKETA-IHARDUNA

9. Atala.– Zerdena.

1.– Euskal Herri-Alorra osatzen duten Izaikien ekonomia-dirubidetzazko iharduna legeei egokitzen zaiela egiaztatzea du xede arakaketak. Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren egitekoak herri-dirueskuraketa eta gastu-egitarauen egiterapena izango du gai.

2.– Arakaketa, 2garren ataleko b) zatian esandako laguntzek zeukaten helburua bete al denearaino iristen da.

3.– Arakaketa hori, halaber, Euskal Herri-Alorra osatzen duten Izaikien ekonomia eta dirubidetzazko ihardunaren eginkortasuna eta eraginkortasuna aztertzea eta hori arrazoizkotzeko eta hobetzeko saloak egiteraino hedatuko da esandako izaiki guztiei edo batzuei buruz. Arakaketa horrek ekonomia-dirubidetzazko ihardun osoa edo horren zati bat izan ahal izango ditu gai, usiketabideak erabili ahal izango direla, eta berariz zehaztu daitezzen norainokoa eta iraupena izango ditu.

4.– Arakaketa-lan horretan, Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak, Eusko Jaurlaritzako Herriogain eta Dirubidetzazko Sailak egin daitezenezko hilaren hurrengoan horretarako ekarriko dion Euskal Herriko Autonomia-Elkartearen Guztizko Diruegitamuen kontu-garbitasunari buruzko agirisorta aztertu eta egiaztatuko du.

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak bere erizpena haiek hartu eta hurrengo lau hilabeteren barruan emango du, honako alderdi hauek nahitaez hartzen dituela:

- a) Herri-diruen eraentzaren alorrean indarrean dauden legebideak nola bete diren.
- b) Egindako herri-gastuen arrazoizkotasuna, ekonomia eta eginkortasun-irizpideak oinarri direla.
- c) Aurkeztutako dirubidetzazko agirisorta erabili beharreko kontaduritzazko arauak nola atxikitzen zaien.

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak emandako erizpena Legebiltzarrari eta Jaurlaritzari jakinaraziko zaie, dagozkion ondoriotarako, bertako ondorioak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu, eta Euskadiko Diruegitamu-Jaurpideen Legeko 139. atalak agintzen duen lege-egitasmoari nahitaez erantsi beharko zaizkio.

5.– Halaber, Foru-Diputazioen eta eska dezatenean Udalbatzarren Diruegitamuen kontu-garbitasunari buruzko agirisortak ere Herri-Kontuen Euskal Epaitegiari bidaliko zaizkio, aurreko zenbakipean esandako epeen euren barruan, Epaitegiak emandako erizpena Legebiltzarrari jakinarazi eta erizpen horren edukiari darizkion neurriak hartzea dagokien arakaketaren gai izandako izaikiei bidaliz. Erizpen horiek aurreko zenbakipean esandako alderdiak izango dituzte gai.

10. Atala.– Arakaketaren gai izango direnak.

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak, beste gaien artean, honako hauek arakatuko ditu:

- a) Horrela aginduta egon dedinetan, edo Epaitegiak komenigarri eritzitakoetan, euskal herri-alorrek egindako akuraketak. Herri-lanen akuraketei buruzkoa bada, arakaketak lanen emankortasuna eta egiteratzearen baliagarritasuna ere hartuko du.
- b) Euskal herri-alorraren ondarearen egoera eta aldakuntzak.

c) Gehitzezko diruizendapenak eta euskal herri-alorraren hasierako diruegitamu-izendapenei egindako eransketa, kontu-aldaketa eta ordainkizun-gaitze eta gainontzeko aldaketa guztiak.

d) Diruegitamuetatikako hartubideen legezkotasuna, arauzkotasuna eta baliagarritasuna.

11. Atala.– Ekimena eta urteko Lan-Egitarauaren tajuketa.

1.– Legebiltzarrari eta Herri-Kontuen Euskal Epaitegiari berari dagokie. Lehenengoan Eusko Legebiltzarraren Osoko Bilkurak eskatuta egingo da eta bigarreanean, hala egokituz gero, Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak berak ontzat emandako urteko egitarauaren bidez.

2.– Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak, urteko Egitaraua tajutzeko eta behin-betiko baitetsi baino lehen, iritzia Eusko Legebiltzarrari eta Batzar Nagusiei nahitaez eskatu beharko die eta, hori, bere araudietan eman daitezzen bidez baliatuz, Epaitegiak egin beharreko arakaketa-lanean haien ustez egon daitezkeen lehentasunak aditzera eman ditzaten.

12. Atala.– Ihardunerako baliapideak.

Lege honen 5 eta 6. ataletan agindutakoaren kaltetan gabe, Euskal Herri-Kontuen Epaitegiak diruegitamu, ondare eta diru-eskuartearen alorreko eragiketei buruzko xehapen, altzina, argipide-txosten, agiri eta informatika-zehaztapen guztiak aztertuz egingo du bere arakaketa-lana.

13. Atala.– Txostenak.

1.– Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren arakaketa-iharduna, agizkoak edo berarizkoak izan ahal izango duten argipide-txostenen bidez gauzatuko da.

Erizpenak egin baino lehen, Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak arakaketaren gai izandako norbanako edo izaikiak egindako arakaketaren emaitzen jakitun jarriko ditu, horretarako jarritako eran eta epeen barruan bere aldezenak egin edo egoki eritzitako agiri edo zuriztapideak ager ditzaten.

2.– Erizpenak, dagozkien saloekin batean, Eusko Legebiltzarrari bidaliko zaizkio, eta bai Batzar Nagusiei ere bakoitzaren Kondaira-Lurraldeari eta hala gertatuz gero Udaltzarrei dagozkiene-kikoan, Jaurlaritzari eta dagokion Foru-Diputazioari aldaki bana bidaliz. Bere lanaren emaitzen kontu emateko, erizpenetango ondorioak dagozkien aldizkari ofizialetan argitaratuko dira, bi hila-beteko epearen barruan.

3.– Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak, bere arakaketa-lanaren ondorio gisa, Euskal Herri-Alorraren eragiketa guztien kontuei buruzko urtean-urteko txosten bat egingo du, eta bai Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak berak ekonomia-urtean burututako ekintzapide guztien laburpena ere.

Urtean-urteko txosten horretan, Euskal Herri-Alorraren ekonomia-dirubidetzazko eraentza hobetzeko neurriei buruz egiten diren saloak erasota utziko dira.

Halaber, arakaketa-lanari buruzko urtean-urteko txostenari, Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak ekonomia-urte horretan burututako agintemende-mailako egintzei buruzko txosten bat erantsiko zaio.

III IZENBURUA.

ERAKUNDE-JAURPIDEAK

LEHENENGO ATALBURUA:

OSATZE-MODUA

14. Atala.– Kideen zenbatekoa.

Herri-Kontuen Euskal Epaitegia zazpi lagunek osatzen dute.

15. Atala.– Hautaketa.

1.– Norbait Herri-Kontuen Euskal Epaitegiko kideetarako aukeratu ahal izateko, goren-mailako tituloaren jabe izan, eta Epaitegiaren ihardutze-eremuan gaitasuna aitortzen zaienetakoa izatea beharrezkoa izango da hori, nolahi ere, 10 urteko lanbide-ihardunaren bermearekin.

2.– Herri-Kontuen Euskal Epaitegiko kideak Eusko Legebiltzarraren Osoko Bilkurak hautatuko ditu, bilkurangoen erabateko gehiengoa beharrezkoa dela.

3.– Hautapenak, hautatutakoa dagokion izendapena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu ondoren bere karguaz jabetu dedin egunaz geroko indarra izango du.

16. Atala.– Karguango iharduna.

1.– Herri-Kontuen Euskal Epaitegiko kide izatea herri-kargutzat joko da ondorio guztietarako.

2.– Herri-Kontuen Euskal Epaitegiko kideetarako hautapenak zerbitzutarako berarizko utzialdiko ardulararitza-egoeran sartzeko eskubidea ematen die karrerako herrilanaiei, bitarterakoei eta ardulararitza-akurapenezkoei, eta nahitaezko utzialdirakoa Euskadiko Autonomia-Elkarteko eta horren mugarteango Kondaira-Lurraldeetako eta Udalbatzarretakolan-akurapenezkoei. Berarizko zerbitzuen jaurpideak Eusko Legebiltzarreko kideentzat bakoitzean indarrean egon daitezenak eurak izango dira.

3.– Epaitegiko kideek epailarien askatasuna eta tokiz aldatu ezina bera izango dituzte.

4.– Herri-Kontuen Euskal Epaitegiko kideak, epailarientzat jarrita dauden ezin, bateraezin eta debeku-zioen eta, hala gertatuz gero, atzera egite edo ukoen zioen euren menpe egongo dira. Nolanahi ere,

a) Eusko Legebiltzarkide,

b) Diputadu-Biltzarreko kide,

c) Senatore,

d) Kontu-Epaitegiko kide.

e) Politika-alderditan, sindikarritza-elkartetan eta enpresarritza-bazkUNETAN artezkarritza edo aginteko egitekoa dituen izatearekin,

f) Erresumako, beste Autonomia-Elkarteetako, edo 2 a) atalean aipatzen diren izaikietako politikazko nahiz ardulararitzazko ezein kargu dituen izatearekin,

g) Bere lanbidean nahiz ordainsarizko edo ordainsaririk gabeko beste ezein ekintzatan aritzea-
rekin batera ezinezkoa izango da.

5.– Herri-Kontuen Euskal Epaitegiko kideek, Euskadiko Autonomia-Elkartearen Guztizko Dirue-
gitamuetan sartuta egon eta Legebiltzarrak ontzat emandako diru-eskubideak izango dituzte.

6.– Epaitegiko kideen manualdia, bere hautapena indarrean jarri dedinean hasi eta sei urtera-
koa izango da. Hautapena tokiren bat hutsik gelditu izanaren ondoriozkoa izan dadinean, horrela
hautatutako kidearen manualdia bere aurrekoarenak bukatu behar zuenerartekoa izango da.

17. Atala.– Epaitegiko kide izatea galtzea.

1.– Honako hauek izango dira Herri-Kontuen Euskal Epaitegiko kide izatea galtzeko zio bakarrak:

- a) Heriotza, edo bere manu-aldia bukatu izana.
- b) Eusko Legebiltzarrak ontzat emanda bere tokia uztea.
- c) Ezina edo elkartuezina.
- d) Bere karguari darizkion egitekoekiko utzikeria larria.

2.– Aurreko idazpuruko a) zatian ohartemandakoa gertatuz gero kide izatea galtzeak berehalako
indarra izango du, horretazko berarizko adierazpenik egin beharrik gabe. Bestetan, kide izatea
galtze hori, Eusko Legebiltzarraren horretazko erabakia Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian
argitaratu dadinez gerokoa izango da.

3.– 1 idazpuruko c) eta d) zatietan ohartemandakoak gertatuz gero, Legebiltzarrak Epaitegiko
kideen egitekoak eta eskubideak, hala badagokio egin daitezkeen ikerpideek dirauteno, eta sei
hilabeterako gehienera, eten ahal izango ditu. Eten hori erabaki dadin unetik bertatik hasiko da,
hurrengo bost egunen barruan, guztiek jakin dezaten, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian
argitaratu behar badira ere. Eten horrek, etenaldiango kideak Epaitegiaren erakuntzan izan ditzan
karguena ekarriko du, berez eta besterik gabe, eta aldi bererako.

4.– 1 idazpuruko d) zatian ohartemandakoa gertatuz gero, Epaitegiko kide izatea galtzea Eusko
Legebiltzarraren bi herenek egitekoak betetzeari modu larriz huts egin diotela eritzi izanaren inda-
rrez gertatuko da.

BIGARREN ATALBURUA:

ERAKUNTZA

18. Atala.– Ihardutze-Sailen zerrenda.

1.– Honako ihardutze-sail hauek osatzen dute Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren egitura:

- a) Lehendakaritzak
- b) Lehendakariordetzat
- c) Osoko Bilkurak
- d) Idazkaritza Nagusiak

2.– Lege hau osabideratzeko arauak aurreko idazpuruan esandako ihardutze-sailen menpeko
beste zerbitzu batzuk sortarazi ahal izango dituzte.

19. Atala.– Lehendakaritza.

1.– Bi zati ditu Herri-Kontuen Euskal Epaitegiko Lehendakariaren manualdiak:

a) Epaitegiko kide guztiak aldatu eta hurrengo hiru urteek osatzen dutena. Aldi horretan, Epaitegi horrek Osoko Bilkuran erabateko gehiengoz hartutako erabakiz egindako saloz Jaurlaritzako Lehendakariak izendatutako kidea izango da Herri-Kontuen Euskal Epaitegiko Lehendakari; aldi honek diraueno Epaitegiko Lehendakaritza hutsik gelditzea gertatuz gero, aldi hori bukatu artekoan Epaitegiko Lehendakariordea jarriko da haren orde.

b) Hurrengo hiru urtekoa. Aldi horretan, atal honetxan aurreko a) zatian esandako eran izendatuko da Lehendakari berria, kargua hutsik gelditzea gertatuz gerorako han esandakoa horrekin ere erabilgarri dela.

2.– Izendatutakoa bere karguaz jabetu ondoren, Lehendakaritarako izendapenak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu dedinaz geroko indarra izango du.

3.– Epaitegiko Lehendakariak honako berarizko agintepide eta egiteko hauek izango ditu:

a) Epaitegiaren epaibidetarako eta epaibideez bestetarako ordezkotza.

b) Epaitegiaren teknika eta ardularitza-zerbitzuen artezkaritza.

c) Gastuak egiteko baimena eta agindua ematea, eta bai Epaitegiari dagozkion ordainketak antolatzea eta dirueskuraketak sendesteko agiriei oniritzia ematea ere.

d) Epaitegiak bere egitekotan diharduela eman ditzan erizpen guztiak izenpetzea.

e) Epaitegiaren Osoko Bilkuraren egunerako gai-zerrendak jarri eta hartu daitezten erabakiak bete daitezeneko aginduak ematea.

f) Epaitegiaren zerbitzurako lan-tokiak betetzeko aukeraketa-saiotarako deiak egitea.

g) Epaitegiaren zerbitzuango lanari guztiekiko zigortze-ahalmena erabiltzea.

h) Legebiltzarraren Osoko Bilkurak eskatu dezanean, Legebiltzarraren aurrera eramandako erizpenei buruzko argipideak ematera agertzea.

i) Lege honek ematen dizkionak.

j) Epaitegiaren Osoko Bilkurak eman diezazkionak.

4.– Honako hauek dira Euskal Herri-Kontuen Epaitegiko Lehendakariak bere tokia uzteko zioak:

a) Epaitegiko kide izatea galdu izana.

b) Lehendakaritarako manu-aldia bukatu izana.

c) Eusko Legebiltzarkideen bi herenen iritziz Lehendakaritzako eginbeharrak betetzeari modu larriz huts egin izana.

5.– Aurreko idazpuruaren a) eta b) zatietan oharmandakoak gertatuz gero, kargua uzteak berezko eta besterik gabeko indarra izango du, horretazko berarizko inolako adierazpenen beharrik gabe. Idazpuru bereko c) zatikoa gertatuz gero, tokia uztea, noiz nola, Eusko Legebiltzarrak egindako saloz Jaurlaritzako Lehendakariak hartutako erabakiz egingo da, eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu dedinaz geroko indarra izango du.

6.– 4. idazpuruko c) zatian oharmandakoa gertatuz gero, Lehendakariaren egitekoak eta eskubideak aldi baterako indargabetuta utzi ahal izango dira, 18. ataleko 3. idazpuruan esandako modu eta neurri berean. Lehendakaritza indarrik gabeko aldi horretan jartzeak ez dakar Epailaritza kide izatea galtzea, 17. ataleko 3. idazpuruan dieona erabiltzearen kaltetan gabe.

20. Atala.– Lehendakariordetza.

1.– Herri-Kontuen Euskal Epaitegiko Lehendakariaren manu-aldiak 19. ataleko 1 idazpuruan esandako zatiak ditu, honela:

a) 19. ataleko 1 idazpuruko a) zatiak dioen manu-aldian, Epaitegiaren Osoko Bilkurak kideen erabateko gehiengoz hartutako erabakiz egindako saloz Jaurlaritzako Lehendakariak izendatu dezan Epaitegiko kidea izango da Euskal Herri-Kontuen Epaitegiko Lehendakariorde; aldi horretan Lehendakariordetza hutsik gelditzea gertatuz gero, esandako era berean izendapen berri bat egingo da.

b) 19. ataleko 1 idazpuruaren b) zatiak dioen manualdi-zatian, atal honetxan aurreko a) zatian esandako eran izendatuko da Herri-Kontuen Euskal Epaitegiko Lehendakariorde berria, kargua hutsik gelditzea gertatuz gerorako han esandakoa honekin ere erabilgarri dela.

2.– Epaitegiko Lehendakariordeak egiteko eta agintepide hauek izango ditu:

a) Lehendakaririk ez izatea, kanpoan edo geldialdian egotea gertatuz gero berez eta besterik gabe haren ordeztu jartzea, horretazko inolako adierazpenik egin beharrik gabe.

b) Lehendakariari bere lanean laguntzea.

c) Lege honek ematen dizkionak.

d) Epaitegiaren Osoko Bilkurak eman diezazkionak.

e) Lehendakariaren agintepeko izan eta horrek horietarako esku emandakoak.

3.– Lehendakariordearekin, 19. ataleko 2, 4, 5 eta 6 idazpuruetan Lehendakariarentzat jarritako arauak eurak erabiliko dira.

21. Atala.– Osoko Bilkura.

1.– Epaitegiko kide guztiek osatzen dute Osoko Bilkura.

2.– Epaitegiko Lehendakaria eta Lehendakariordea izango dira, hurrenez-hurren, Osoko Bilkurako Lehendakari eta Lehendakariorde. Idazkari Nagusia izango da Osoko Bilkurako Idazkari, bilkuretara hitz egiteko eskubidez baino botoa ematekorik gabe joan daitekeela.

3.– Osoko Bilkura urtean lau aldiz bilduko da, gutxienez, egutegiko hiruhilabeteko bakoitzean behin, bere Lehendakariak deituta. Bilkurakideen erabateko gehiengo bertan egon dadinean balio osoz eratuta dagoela joko da. Osoko Bilkurak balio osoko erabakiak hartu ahal izateko, bertangoen erabateko gehiengoaren, eta nolana ere bi kideren aldeko botoa beharko da, Lege honetan besterik agintzen denetan salbu; Lehendakariaren botoak ebazte-indarra izango du.

4.– Lege honek berariz ematen dizkionaz gainera, Epaitegiko beste ihardutze-sailei izendatu gabeko guztiak ere Osoko Bilkuraren agintepeko izango dira, horretaz barne-jaurpiderako Araudiak besterik badio salbu.

Dena dela, Epaitegiko barne-jaurpiderako Araudia onartzea bertako Osoko Bilkurari dagokio.

5.– Osoko Bilkurak, bere agintepideak errazago egiteratu ahal izateko, bertako kidez baizik osatu gabeko Batzordeak eta Lan-sailak eratu ahal izango ditu, bateango edo bakarreango ihardutze-sailetarako, hurrenez-hurren, berak zehaztu ditzan iraupen, erakuntza eta agintepideekin, eta erabakitze-indarrik ezin izan dezaketela. Hala erabaki dadinean, Idazkari Nagusiak Batzordeen bilkuretara joan ahal izango du, hitz egiteko eskubidez bainan boto ematekorik gabe.

22. Atala.– Idazkaritza Nagusia.

1.– Herri-Kontuen Euskal Epaitegiko Idazkari Nagusia Osoko Bilkurak izendatuko eta kenduko du, bere Lehendakariaren saloz. Izendapenak, hautatutakoa bere izendapena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu ondoren bere karguaz jabetu dadineko egunaz geroko indarra izango du; kentzea, eragite-indarra izan dezan, esandako Agintaritza-Aldizkarian argitaratu beharko da. Epaitegia osorik berritzeak ez du Idazkari Nagusia kentzea berebaitan izango.

2.– Ihardutze-egituraz, Idazkari Nagusia Epaitegiko Lehendakariaren menpe egon, eta honako egiteko hauek izango ditu:

a) Epaitegiko teknika eta ardularitza-zerbitzuen eraentza, Epaitegiko Lehendakariaren Artezkaritzapean.

b) Epaitegiko ihardutze-sail eta kide guztientzako teknikazko eta ardularitza-laguntza.

c) Lege honek ematen dizkionak.

d) Lege honen III Izenburuko Hirugarren Atalburuan esaten diren gaiei buruz Epaitegiko Osoko Bilkurak eman diezazkionak.

e) Lehendakariaren agintepeko izan eta honek haietarako eskua emandakoak, Lege honen III Izenburuko Hirugarren Atalburuan esandako gaiei buruzkoak izan daitezenaren baldintzapean.

3.– Idazkari Nagusiak, Euskadiko Autonomia-Elkarteko Ardularitza goren-karguak dituzten elkartuezinak eurak izango ditu.

4.– Idazkari Nagusiarekin 15. ataleko 1 idazpuruak dakartzan arauak erabiliko dira, lanbide-azturi buruzkoa salbu, eta Lege honen 16. atalaren 5. idazpuruak.

HIRUGARREN ATALBURUA

EKONOMIA, ONDARE ETA LANARIGO-JAURPIDEAK

23. Atala.– Denentzako erabakiak.

1.– Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren ekonomia, ondare eta akurapen, eta lanarigo-jaurpideak Euskadiko Autonomia-Elkarteko Ardularitza-entzate indarrean egon daitezenak eurak izango dira, Eusko Legebiltzarraren menpeko ihardutze-sail izateari darizkion berezitasunekin eta, nolana ere, Atalburu honetan agintzen dena betez.

2.– Bere ekonomia, ondare eta akurapen eta lanarigo-jaurpideei dagozkienetan, Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak Euskadiko Autonomia-Elkarteko Ardularitzak une berean izan ditzan agintepideak eurak izan, eta bere ihardutze-sailen bidez egiteratuko ditu, Atalburu honetan ohartematen denaren arauera.

24. Atala.– Ekonomia-jaurpideak.

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren diruegitamua Autonomia-Elkartearen Guztizko Diruegitamuetan, horietako Sail bat osatuz sartuta egongo da.

25. Atala.– Ondare-jaurpideak.

1.– Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren ondarearen jabegoa Euskadiko Autonomia-Elkarteko Arduralaritzari dagokio.

2.– Epaitegiak Autonomia-Elkarteko ezein ihardutze-saili, ondare eta akurapen-jaurpideei buruzkoan beharrezko izan dezan teknikazko laguntza eman diezaiola eskatu ahal izango dio.

26. Atala.– Lanarigo-jaurpideak.

Herri-Kontuen Euskal Epailaritzaren zerbitzuango lanari izatea, gainera, bere alderdikierarik ezaren edo lanbide-iareitasunaren kaltetangoa izan, edo Euskal Herri-Alorrekoak izan ezarren Epailaritzaren ikuskaritza edo ebazpenpeko herri-diruak erabili ditzaten erakundeekin nolabaiteko atxikipena izan dezan ezein lanbiderekin elkartuezinakoa izango da.

27. Atala.– Orotariko jaurpideak.

1.– Atal honetan aipatzen diren gaiei buruzkoetan, Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak Euskadiko Autonomia-Elkarteko Arduralaritzarekin erabilgarri diren egintza, biderapen eta agintaritza-artarekiko arauak jaurpide izan eta, beraz, horrek dituen agintepide, ahalmen, abantaila eta eskubideak eurak izango ditu.

2.– Atal honetako 1 txatalean agintzen denaren arauera, Arduralaritza-Auzipideen ardurapean utzitako gaiak izan daitezenean, honako arau hauek erabiliko dira:

a) Idazkari Nagusiaren egintzek Epaitegiko Lehendakariaren aurrerako goradeiaren gai izan ahal izango dute, horren erabakiak arduralaritza-auzipidetara baino lehenagoko bideak bukatzen dituela.

b) Epaitegiko Lehendakariaren eta Lehendakariordearen egintzegtatik, Osoko Bilkuraren aurrerako arren-eskea egin ahal izango da, horren erabakiak arduralaritza-auzipidetara baino lehenagoko bideak bukatuta uzten dituela. Arren-eske horrek, agizko goradeiaren arauak eurak izango ditu jaurpide.

c) Osoko Bilkuraren egintzak, arduralaritza-auzipidetara baino lehenagoko bideak bukatuta utziko ditu.

3.– Atal honetako 1 txatalean esandako gaiei dagozkienetan, Epaitegiak, argitalpen ofizialak egin behar ditzanean, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian egingo ditu.

ALDI BATERAKO ERABAKIAK

Lehenengoa.– Herri-Kontuen Euskal Epaitegiko kideen lehenengo aukerapena.

Lege hau indarrean jarri dedin egunetik hasi eta sei hilabete baino gehiagokoa gabeko epearen barruan egingo da Herri-Kontuen Euskal Epaitegiko kideen lehenengo aukeraketa.

Bigarrena.– Euskal Herri-Kontuen Epaitegiaren ihardunaren hasiera.

1.– Euskal Herri-Kontuen Epaitegia, bertako kide guztien legezko aukeraketa egin dedin unean bertan ekingo zaio bere ihardunari.

2.– Bere egitekoak betetzen, Lege honetan eta Eusko Legebiltzarrak onartu ditzan arau osagarrietan agindutakoei atxikiko zaie. Azkeneko hauek ontzat eman eta indarrean jarri ez daitezen artean, Erresumako Kontu-Epaitegiaren ihardunarekin erabilgarri diren araupideak izango ditu jaurpide.

Hirugarrena.– Herri-Kontuen Euskal Epaitegia bere ihardunari ekin dakioneko ekonomia-urteko diruegitamuak.

Epaitegia bere ihardunari ekin dakioneko ekonomia-urteko diruegitamuak Eusko Legebiltzarreko Ekonomia, Herriogasun eta Diruegitamu-Batzordeak ontzat eman, eta horrek zehaztuko ditu, Legebiltzarraren Diruegitamuen pentzutan; eta hori aski ez balitz, eta behin-behingokoagatik, Euskal Herriko Autonomia-Elkartearen Guztizko Diruegitamuetako 99. Sailaren pentzutan, haien-tzako dirubideak.

AZKEN ERABAKIAK

Lehenengoa.– Arau osagarriak.

Legebiltzarrari dagokio Lege hau osatzeko arauak onartzea, Lege honetxan III Izenburuko Bigarren eta Hirugarren Atalburuetan agindutakoak osatzekoak salbu, hauek ontzat ematea Euskal Herri-Kontuen Epaitegiaren Osoko Bilkurari bait dagokio.

Bigarrena.– Berenezko egitekoetan aritzeari buruzko Txostena.

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak egin dezan urteroko bigarren txostenean, 2. atalaren arauera bere gain dituen egitekoetan aritzeari buruzko berarizko balio-neurketa egin eta, hala badagokio, egiteko horietan hobeto aritzeko beharrezko derizkion legezko aldaketak egiteko saloa egingo du.